

OSAKIDETZA:

THINKTIC: Eraldaketa digitala osasun-laguntza berriari aurrea hartzeko, pandemiaren aurrean proban jartzeko



Departamento
de Salud

Enrique González Arza
arza@osakidetza.eus
688811011

<https://www.osakidetza.euskadi.eus/red-salud-mental-bizkaia/-/thinktic-rsmb/>



Jarduera: RSMB/BOMSek Zaldibarko, Zamudioko eta Bermeoko ospitaleak eta 50 gailu baino gehiago biltzen ditu. Gailu horietan osasun mentaleko arreta espezializatua ematen da, asistentzia-eredu komunitario batetik, beste erakunde sanitario eta soziosanitario publiko eta pribatu batzuekin lankidetzan.



Sektorea: Osasun-jarduerak



Enplegatutako pertsonen kopurua: 26497



Lokalizazioa: Alameda de Rekalde, 39, 48008, Bilbao - Bilbo, Bizkaia

EUSKADI mailako berrikuntza INKREMENTALA**Zergaitik izango litzateke berrikuntza kasu praktiko bat?**

Izan ere, berrikuntza sistematizatu dakar, aurrea hartzeko estrategia gisa, IKT oinarria duten formula berritzaileak arakatzuz eta elkarrekin asmatuz, laguntza eta sareko lana hobetzeko. Berrikuntza estrategiko horrek teknologia-, antolamendu- eta prestakuntza-inbertsio handia izan du 5 urtez, eta, horri esker, arreta-zerbitzua egoera txarrean mantendu ahal izan da, hala nola Covid19n.

KASU PRAKTIKOARI BURUZKO INFORMAZIO ZEHATZA

2015ean sortu zen ThinkTIC, laguntza-paradigma digital berria errealtate bihurtzeko proiektua. Laguntza-, teknologia- eta berrikuntza-profesionalen hausnarketa bateratutik sortu zen ekimena. Bere garaian berritzailea zirudienak (etorkizunaren inguruan hausnartzea) aukera eman dio erakundeari prest egoteko pandemiari erantzun egokia eman eta gizarteak eskatzen dituen beharrak aurreikusteko.

Emaitza 3 agertokiko ibilbide-orria izan zen (ProTIC, Co-Red, e- RSMB) eta hori ezarri eta ebaluatu diren hainbat ekimenen bidez egikaritu da. Horretarako, beharrezkoa da profesionalak IKTei begira dituzten behar eta motibazioak identifikatzearen garrantzia azpimarratzea eta horiek ezartzeko jarduketa-ildoak diseinatzea, Design Thinking metodologia erabiliz. Hala, diziplina artean eta zeharka landu da, prozesuen eraldaketa eta bitarteko teknologikoen egokitzapena sustatuz. Horrekin batera, profesionalen prestakuntza- eta gaikuntza-estrategiari jarraitu zaio.

Proiektua aurrera eramateko, Bizkaiko Osasun Mentaleko Sarea osatzen duten hainbat zentro integratu dira. Ikuspegi soziosanitarioa duen laguntza-eredua beste eragile publiko, pribatu eta sozial batzuekiko lankidetzan oinarritzen da, osasun-arreta jorrazteko ikuspegi integral eta komunitariotik. Gainera, ThinkTIC egiteko kanpoko aholkularitza-enpresa baten laguntza jaso zuten, hasierako hausnarketa-prozesuan.

2015az geroztik, BOMS sareak eraldaketa digitala landu du ThinkTIC proiektuaren bidez; hori dela eta, 2020ko martxoan pandemia hasi zenean, aurretiazko lan horrek erakundearen erantzuna erraztu zuen. Horrek aukera eman zien laguntza-profesionalei erantzun egokia emateko larrialdi-egoerari, IKT tresnen bidez; horrela, pazienteak zaintzen jarraitzea bermatu zen.

Hori lortu ahal izan zen aurretik erakundearen barruan eraldaketa digitalerako proiektu berritzaile bat landu zelako. Proiektu horren xedea da ziurgabetasun-testuinguruan konponbideak ematea eta honako ardatz hauek ditu: zerbitzuaren prestazioa hobetzea, aldaketak aurreikustea (zaintza-prospektiba) eta profesionalen garapena gaitu eta sustatzea. Beraz, ekimen honekin hori guztia lortu da.

Aurrekariak

2010ean sortu zen Bizkaiko Osasun Mentaleko Sarea erakunde gisa, eta haren lehen erronka izan zen sistema osorik informatizatzea eta paperaren erabilera baztertzea. Proiektua amaitu ondoren, 2015ean hausnarketa bat egin zen, eta planteatu zen nolakoa izango den osasun laguntza 25 urte barru. Hausnarketa parte-hartzaile horren emaitza gisa sortu zen eraldaketa digitalerako ThinkTIC proiektuaren ideia, prozesu teknologikoetako inbertsioa, beharrezko antolakuntza-aldaketak eta helburuak lortzeko beharrezko prestakuntza barne hartzen dituen ibilbide-orria.

Erronka

ThinkTIC ezarri zenetik, erakundeak aurrean izan duen erronka handiena aldaketa teknologikoaren aurrean profesionalak duten erresistentzia izan da, baita egunerokotasunean lanean teknologiak erabiltzeko ikuspegia aldatzea ere. Bestalde, 2020ko martxoan, pandemia egoeraren ondorioz, osasun-zerbitzuak konfinamendu orokorrera egokitu behar izan ziren. Horren harira, telelaguntzan oinarritutako telemedikuntza-plan bat zehaztu zen, eta barne hartu zituen telefono bidezko kontsultak, bideokonferentzia bidezko terapiak eta profesionalak historia klinikorako sarbidea izatea etxetik.

Ekintzak

1. Digitalki aurreratuak izango ziren pertsonak hautematea. Horretarako, lehenik bilaketa bat egin zen erakundean (modu boluntarioan), eta pertsonak bildu ziren proiektuan zehar laguntzeko.
2. Laguntza-, teknologia- eta metodologia-profileko diziplina anitzeko tailerrak. Tailer horietako ekintza nagusia izan zen etorkizuna irudikatzea 20 urte barru, Design Thinking metodologia sortzaileen bitartez.
3. Ibilbide-orri bat zehaztea hainbat agertoki lantzeko mugarri eta ekintza zehatzekin.
4. Laguntza-profesionalekin batera hautematea eguneroko laneko zein gabezia edo alderdi hobetu daitezkeen teknologia berrien bidez. Horren harira, lehentasunezko gaiak jorrazteko lantaldeak sortu ziren.
5. Ekimenak garatzea (mugarrietan oinarrituta) prestakuntzaren, aurkezpenen eta proiektu zehatzen bidez.
6. Emaitzak eta hausnarketa estrategikoa aurkeztea. Urtebeteren buruan, bilakaera aztertu zen eta ordura arte egindakoa aurkeztu zen erakundearen zuzendaritza taldearen aurrean.
7. Proiektua eta erakunde gisa lortutako heldutasun digitalaren maila ebaluatzea.

Lortutako emaitzak

- Pandemiaren aurreko emaitzak:
 - Profesionalen kopurua ThinkTIC taldean: 27
 - Dibulgazio-ekimenak:
 - o 2 ahozko aurkezpen kongresutan.
 - o 3 ahozko aurkezpen BOMS sarearen "Elkarrekin ikasten" jardunaldietan.
 - o 1 ahozko aurkezpen BOMS sarearen jardunaldietan.
 - o 7 berri BOMS sarearen hileroko buletin elektronikoan.
 - Abian jarritako ekimenak: 7
 - IkasTIC-en emandako prestakuntza-pilulen kopurua: 446
 - IkasTIC pilulak eskatu dituzten profesionalen kopurua: 116

- Emaitzak pandemian zehar:
 - Etxetik euren kontsulta-ordenagailura urrunetik konektatutako BOMS sareko profesionalen kopurua (pazientearen historia klinikoan sartzeko): 350
 - Telelaguntza bidez egindako urruneko jarduera: 2019an (5.752 paziente), 2020ko lehen seihilekoan (19.622 paziente).
 - Zentro guztiek egin zituzten koordinazio-bideokonferentziak.
 - Zentro batzuek bideokonferentziak egin zituzten taldeko terapietako pazienteekin.

- Gaur egun pilulak eskaintzen jarraitzen dute (batez beste 20-30 pertsona hilean).
- Areagotu egin da pertsonen euren trebetasun teknologikoak hobetzeko duten interesa.
- EUSKALITen urrezko A lortzea.

KASUAREN KATEGORIZAZIOA

Berrikuntza-eremuak:

- Prozesua: Berrikuntzaren Kudeaketa.

Aukera arloak:

- 1 - Eraldaketa teknologikoa/digitala
- 2 - Osasun-trantsizioa/osasuna

Enrique González Arza (informatikako burua)

“Gure ikaskuntza nagusia zera izan da, bete-betea asmatu genuela etorkizunean alde aurretik pentsatzerakoan. Gainera, erakundeko pertsona eta errealitateetara egokitu gara”.

Josune Martínez Magunacelaya (antolakuntza-teknikaria)

“Pandemia proba erabakigarria izan da guretzat. Plangintzarik gabe, igerilekura jauzi egitea izan zen, eta konturatu ginen aurretik egindako lana emaitzak ematen ari zela. Beraz, trantsizioa askoz errazagoa izan zen”.

Innovation Index Score: ★★★★★

Lerrokatze estrategikoa: ★★★★★

Kreatibitatea: ★★☆☆★

Kolaborazioa eta hibridazioa: ★★☆☆★

Sistematizazioa: ★★☆☆★

Eraginkortasuna emaitzetan: ★★★★★

Efizientzia emaitzetan: ★★★★★

Erreplikagarritasuna eta transferigarritasuna: ★★★★★

★

Eragina: ★★★★★

Aintzatespena: ★★☆☆★